

# Krispeta, arto hegalaria



Marikalanbre sukaldera sartu, eta Amona Txinpartarengana joan da zuzenean.

–Zer usain ona. Zer ari zara egiten? –eta erantzuna entzun gabe, tapa altxatu du.

Krispetak hegan atera dira, eta batek sudurraren puntan jo dio Marikalanbri.

–Ez egin barre, amona! Bai bihurriak, krispeta hauek!



## Krispetak, bai gozoak!

Krispetak egiteko artoa berezia da, edo artomota guztiakin egin daitezke krispetak?

### ✿ Materiala

Mikrouhin-labean krispetak egiteko bi arto-zorro  
Arto gozoa (entsaladetan erabiltzen dena)

Plater bat

Mikrouhin-laberako tapakia

Mikrouhin-labea

### ✿ Zer egin?

Ireki krispetak egiteko arto-zorroetako bat, eta ikusi nolakoak diren. Sartu bestea mikrouhin-labean, bilgarrian jartzen duen moduan, eta berotu jartzen duen denboran (3 minutu inguru).

Berutzen den bitartean, begiratu nola puutzen den zorroa, eta entzun nola lehertzen diren arto-aleak.

Gero, hartu arto gozoa, eta alderatu krispetak egiteko artoarekin. Antzekoak dira, ezta? Jarri ale batzuk plater batean, estali estalkiarekin, eta berotu mikrouhin-labean, 3 minutuz. Lehertzen al dira?

### ✿ Zer gertatu da?

Krispetak egiteko artoa berezia da: ura du barruan. Ur hori berotu eta 100<sup>o</sup> C-tara iristen denean, lurrundu egiten da. Eta lurrunak artoaren azala lehertzen du. Hala, barrualdea harrotu egiten da: horra krispeta!

Arto gozoak, berriz, ez du hainbeste ur barruan; hortaz, berotu arren, ez da lehertzen.



–Ez dakit nor den bihurriagoa, krispeta ala zu –esan dio amonak. Tapa ez altxatzeko esaten ari nintzen, baina ez didazu kasurik egin. Gainera, krispetak ez dira bihurriak, arto berezia baizik.

–Oso berezia. Pin-pan-pun lehertzen da, eta hegan egiten du! Nola lortzen du hori? –galdetu dio Marikalanbrek.

Amonak krispetaren sekretua artoaren bihotzean dagoela erantzun dio.

–Bai, Marikalanbre. Izan ere, krispetak egiteko artoak ura du barruan. Eta ura ehun graduraino berotzen denean, lurrundu egiten da. Orduan, artoaren kanpoko azala lehertzen du, pin-pan-pun, eta barrualdea harrotu eta kanpora ateratzen da. Horra krispeta!

–Zein ona, amona! Eta zein goxoa!  
Eta bien artean, krispeta guztiak jan dituzte.

